



## Urkin auzolana eta gau magikoa

Haurreskola: egokitzapen prozesua

Elkarrizketa: Oskar San Martin

Hondakin organikoak

**2**017. urtea agurtzeko ueña iritsi zaigu, eta horrelakoetan gertatzen den moduan, urteari errebaso egin eta zer aho zapore utzi digun hausnartzeko ueña izaten da: batzuentzat zapore gozoko urtea suertatuko zen; beste batzuentzat, aldiz, zapore mingotsekoa; gehienentzat 2017. urtea gazi-gozoa suertatuko zen; bizitza bera ere horrelakoa izaten da gehienetan, zapore gozoko unetxo batzuk, garratzak suertatzen zaizkigun disgustu eta kezak, eta egunerokotasunezko bizitza printzak.

Urteari begirada orokor bat ematen hasita, badirudi krisialdi hitzak indarra galdu duela. Lehen ahoz aho eta komunikabideetan etengabe zebilen hitza izatetik alboratua izan dela dirudi; baina, hala ote da? Eta, hala bada, zein izan dira utzi dituen kalteak? Ezagutzen al duzu krisialdi deritzon lan galdu eta adina, presakuntza eta beste arrazoi batzuk medio berriz ere lan duin bat topatzeko esperantza galdu duenik? Eta zer iritzi daukazue krisialdiaren aitzakian lan eskubideak, eskubide sozialak eta eros ahalmena galdu ditugun herriar multzo handiaz? Orain berriz dena arrosa kolorekoa al da? Ez da gure helburua lerro hauetatik mundua konpontzea, ezta gutxiago ere; baina, ez ditugun ahaztu krisialdiak baztertuta utzi dituen lagun eta herriarrak, eta are gutxiago urteetako lan eta borrokaren ondorioz lorturiko eskubideen gainbehera. Ez dezagun iparra galdu, eta ahal dela, norberak jar dezala bere aletxoa.

Itsasondo herriari dagokionez, aurten ere elkartasunak leku garrantzitsua izan du herriaren agendan: erre-

fuxiatuen egoera gogorarazteko ekimenak, horiek laguntzeko diru bilketak eta Ongi etorri errefuxiatuak festa eta aldarrikapen egun arrakastatsua. Elkartasuna, festa eta parte-hartzea bat etorri daitezkeen erakusgarri. Aurten ere gure zilborrari begiratzeari utzi eta beharra dutenentzat ekimenak antolatuko direla ziur gara; Ongizate lan taldekoak buru-belarri dabilta lanean; lerro hauen bidez zoriondu eta eskertu nahiko genituzke egindako lan guztiarengatik, ez da makala egiten ari diren lan guztia. Bide batez, norbait bere aletxoa jartzeko prest balego, gonbidapena egina dauka.

Itsasondo 2.0 aldizkariari dagokionez, asmo xumeekin gatz. Aurten helburuak honakoak dira: aldizkaria garaiz izatea zuen etxeetan, herrian gertatzen denaren berri ematea zuei, bitxikeria edo elkarrizketa interesgarriren bat idaztea, zuen etxeetan txoko bat egitea... Helburuok betetzeko gogoz saiatuko garela promesa egiten dugu; lortzen dugun edo ez zuek esan beharko duzue.

Amaitzeko, ez ditugu ahaztu nahi data hauetan hain ohiko izaten ditugun asmo onak. Zerrendaren goiko aldean egoten dira kirol gehiago egitea, ikastaroren batean izena ematea, hizkuntzaren bat ikastea, gehiago bidaiatzea... Ez dago gaizki asmo eta egitasmo berriak izatea, baina ez gaitezen asmo guztietara iritsi nahian ito. Saiatu gaitezen urte berriak eskaintzen dizkigun momentu txiki guztiez gozaten, banan bana eta momentuz momentu, eta etorri behar duena etor dadila, irribarre batekin harrapa gaitzala. Urte berri on!

- 03. **Udaleko berriak**
- 04-05. **Haurreskola:** Egokitzapen prozesua
- 06-07. **Eskola:** Gure korrikalariei elkarrizketa
- 08. **Jubilatuak**
- 09. **Tipi-tapa:** Idoia Jakari elkarrizketa
- 10-11. **Ondartez**
- 12. **Ongizatea:** Harrera eguna
- 13. **Hondakin organikoa**
- 14. **Guraso elkarte:** Gaztain jana
- 15. **Elkarrizketa:** Oskar San Martin
- 16. **Informatika:** Teknologia gailu berriak
- 17-21. **Hemeroteka**
- 22. **Natura eta errezeta**
- 23. **Euskararen atala**
- 24. **Oharra / Kultur agenda**



# Udaleko berriak

**2017. urte amaierara iritsi gara, eta jarraian, azken hiruhilabeteko erabakiak eta berriak azalduko dizkizuegu.**

## DIRU-LAGUNTZAK:

### Eskatutakoak

- Liburutegian irakurzaletasuna sustatzeko eta liburu berriak erosteko.
- Herri Eskolan zenbait obra txiki egiteko.
- Pilotalekuaren irisgarritasuna hobetzeko Eusko Jaur-laritzara.
- LANBIDEko zuzendariak enplegua sustatzeko egin-dako deialdia jarraituz, herriko zenbait eraikin eta al-tzairu pintatzeko langile baten kontratazio gastuak kubritzeko laguntza lortu da. Lanpostu horretarako izena emateko epea azaroaren 22an amaitu zen, eta baldintzak betetzen zituzten langileen artean aukeratu izan den langilea abenduan hasi da lanean eta ekainaren 12ra bitarte bertan izango da.

### Jasotakoak:

- Itsasondoko Osasun anbulategiko mantenimendu gastuetarako, 6.871€.
- Liburutegian irakurzaletasuna sustatzeko, 722€.
- Liburutegiko multzoak berritzeko, 414€.
- Gazteria kultur ekimenak antolatuzeko, 6.437€.

## BESTE ZENBAIT ERABAKI

- Hiru obra baimen espediente onartu dira.
- Arbel aitz elkarteari iraileko eta urriko zenbait ostira-letan pintxo poteoa egiteko baimena eman zitzaion.
- Herri bideetatik zehar garraio bereziak (pinu egurra) ateratzeko hiru baimen eman dira.
- Herriko jaietako postuak jartzeko baimenak eman ziren.
- Iraileko, urriko eta azaroko fakturen zerrendak onartu dira: 109.118,55€.
- Hilerrian kontzesioak emateko bederatzi espediente onartu dira.
- Udaleko lokalak erabiltzeko 15 eskabide bideratu dira.
- Talde bati udaletxean Pilates ikastaroa emateko baimena eman zaio.
- Ermintza elkarteari ehiza postuen zozketak udaletxeko pabeloian egiteko baimena eman zitzaion.
- Udal sailletako egur ustiaketa enkante bidez emateko deialdia egin da.
- Hilerriko lurperatze lanen 10 likidazio onartu dira.
- Bizi nai elkartean makrobiotika ikastaroa emateko baimena eman da.
- Udal tasen erroldak (ura, zaborra, estolderia) onartu eta kobrantzan jarri dira.

## UDALAK DIRU-LAGUNTZA HAUEK EMAN DITU:

- Bizi Nai jubilatutako elkarteari 2.100€ko laguntza, 2017ko ekin-tzak finantziatzeko.
- Bizi Nai Jubilatutako elkarteari 1.100€ko laguntza, Jubilatutako eta pentsionisten eguna antolatuzeko.
- Arbel aitz elkarteari 1263€ko laguntza.
- Odol emate elkarteari 225€.
- Nafarroa Oinez eta Herri Urrats: 250€ko laguntza bakoitzari.
- Itsasondoko Herri Eskola: 1.852€.
- Euskal Fondona, Herrialde pobreetan programak gauzatzeko: 1.444€.

## 2017KO AURREKONTUA

Itsasondoko Udalak 2017. urterako onartutako udal aurrekontua 860.000€koa zen. Urtean zehar onartu diren kreditu aldaketa espedienteen ondorioz, behin betiko aurrekontua 913.450€koa izan da. Kreditu aldaketa espediente hauek 2016ko kreditu gerakinarekin finantziatu dira.

## ARKITEKTO PLAZA

Itsasondoko Udalak 2015ko abenduaren 9an egindako batzarrean, udaleko plantillan %20ko dedikazioarekin arkitekto plaza sortzea erabaki zuen. Lanpostua betetzeko lehiaketa-oposaketa egin da Legorretako Udalarekin batera, eta lanpostua lortu duen Beñat Mendiburu Valles arkitektoa 2018ko urtarrilean hasiko da lanean.

## ETXEBIZITZA ERRENTAN

Nagusia 7ko 1. solairuko etxebizitza errentan emateko egin-dako deialdiaren ondorioz, hiru eskaera aurkeztu dira. Udalak 2017ko abenduaren 18an puntu gehien lortu duen bizilagunaren aldeko erabakia hartu du, eta Irati Salinasi bi urtez errentan ematea erabaki da.

## ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA 2018RAKO

- Urriaren 16an egindako udal bilkuran, 2018. urterako aldatu beharreko ordenantza fiskalen tarifak aztertu ziren. Hauek izan dira aldatutako zergak eta tasak:
- Ur tasak %2ko igoera izango du.
- Zabor bilketa tasak %2ko igoera izango du.
- Hileta zerbitzuak, obra baimenak, kirol zerbitzuak, estolderia, ibi eta establezimenduak irekitzeko tasak %1,5eko igoera izango du.
- Zergen kasuan, Ibilgailuen gaineko zergak %1,5eko igoera izango du, eta etxebizitzaren zergak %2koa.
- Tarifa guztien hehetasuna 2017ko abenduaren 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da.



# Egokitzapen prozesua

Kaixo, denoi.

Urkipe haurreskolan kurtso berria hasi dugu. Koadrila polita gaude: zortzi haurtxo eder eta bi hezitzaile. Ordutegia 07:45etik 16:30era da.

Guk, urtero bezala, ikasturtea haur berrien egokitzapen prozesuarekin hasten dugu. Momentu honek garrantzi handia du haurraren ongizatean, haurrari behar duen denbora eta arreta eskaintzen badiogu, etxetik haurreskolarako transizioa plazerrez biziko duelako. Horrek gelako giroa lasaia eta armoniatua izatea erraztuko du.

Haurra haurreskolan hasten denean, gune ezagun batetik giro ezezagun batera dator, eta aldaketa horrek ziurgabetasuna sor diezaioke. Haurrek ez dituzte egun batetik besterako aldaketak erraz onartzen. Errutinen bidez (jolasa, atsedena, jana, higienea...) eguneroko jardunak integratzen dituzte, beraien bizipenak barneratuz; horrela, gero eta seguruago sentitzen dira. Hemen datza, beraz, errutinen garrantzia, haurra seguru sentitzeko garaian.

Hezitzaileekin ere berdin gertatzen da; egunero hezitzaile berdinarekin harremanak izanez gero, hau ezagutzen eta onartzen doan heinean, lotura seguru bat eraikitzen joango da. Horregatik, hezitzaile aldaketa asko egotea ez da komeni.

Beharrezkoa da egokitzapen prozesua apurka-apurka egitea. Nahiz eta legeak hamabost eguneko epealdia agintzen duen, gu (hezitzaileak),

prozesu hauek norbanakoak izan daitezen saiatzen gara, haur bakoitzaren beharren arabera egokitzu, alegia. Beraz, beharra sentituz gero, prozesua pixka bat luzatzeko aukera ematen dugu. Azken finean, gure helburua da haurra haurreskolan lasai, seguru eta pozik egotea.

Egokitzapen prozesuaren aurreneko egunetan ordubetexo bat egoten dira gelan, bere erreferentearekin (ama, aita...). Hau haurreskolarekin duen lehenengo kontaktua izango da. Normalean, guk ez dugu lehenengo egunean haurra hartzen; ez dugu ahaztu behar gu arrotzak garela berarentzat. Distantzia batetik behatzen dugu; espazioa eta materiala onartzen hasi dela ikusten dugunean, pixkanaka-pixkanaka eta errespetuz gerturatuko gara berarengana, eta berak onartzen gaituen heinean, harremana estutzen joango gara, gurasoa apurka-apurka bigarren planoan utziz. Haurra espazioa eta hezitzailea barneratzen hasi ahala, gurasoa kanpora irteten hasiko da, eta era berean, haurrak hezitzailea hartuko du pixkanaka erreferentetzat. Azkenik, egonaldia luzatzen joango da, bere ordutegia osatu arte. Horrela, haurra ikasturte osoan etxean bezala sentitzea lortuko dugu.

Momentu honetan, gure haurreskolako egokitzapen prozesua amaitutzat eman dugu; haurrak jadanik haurreskolan modu autonomoan dabilta ekintzak egiten. ■



# Gure korrikalariei elkarrizketa

**Eskolan kirola lantzen ari garela, nola utzi alde batera Behobia-Donostia lasterketa? Ziur aski horixe izango da gure inguruan kirolari gehien biltzen duen ekintza eta 7 itsasondoar zirela bertan parte hartu zutenak jakin genuenean, zorientzeaz gain eskolara etortzeko gonbitea egin genien euren bizipenak kontatzeko. Marijo, Igor eta Unairekin gustu-gustura egon gineneuren kontuak entzuten. Horiez gain, Maddi, Nerea, Roberto eta Iñaki izan ziren beste txapeldunak. Zorionak zazpioi!**

## **Txikitan beste kirolen bat egin al zenuen?**

Marijo: Bai, gimnasia erritmikoa eta futbola egin nituen.  
Igor: Txikitan igeriketa egiten nuen; gero igeriketako entrenatzailea izan nintzen.

Unai: Bai, futbola, pilota, txirrindularitza, igeriketa... eta 10-11 urterekin korrika egiten hasi nintzen eta handiagoa nintzenezan Ordiziara joaten nintzen taldearekin korrika egitera.

## **Zenbat urterekin erabaki zenuen zurea korri egitea zela?**

I: Duela 14 urte gizontzen hasi nintzela eta zerbait egin behar nuela ikusi nuen. Orduan erabaki nuen korrika hastea.

## **Zer entrenamendu egiten duzu?**

M: Serieak egiten ditut, abdominalak ere bai, eskailerak igo...

## **Taldean edo bakarrik entrenatzen duzu?**

M: Taldean entrenatzen dut.

I: Ni normalean bakarrik ibiltzen naiz, baina nahiago dut taldean.

## **Astean zenbat aldiz entrenatzen duzu?**

I: Hiru aldiz korrika egiten dut eta bitan igeri, beti txandaka.  
U: Astean gutxienez lau alditan entrenatu behar izaten da lasterketa txukun egiteko.

## **Janariari garrantzi handia ematen al diozu?**

I: Bai, oso garrantzitsua da jatea, baina edatea oraindik garrantzitsua da.



## **Gozokiak jaten al dituzu tarteka?**

Ez, baina badaude gominola antzeko batzuk korrika ari zarelata jateko.

## **Lasterketa aurretik edozein janari jaten al duzu?**

M: Makarroiak eta horrelakoak jaten ditut.

## **Behobia-Donostia egin aurretik, zer gosaldu zenuen?**

M: Beti bezala, baina barratxo energetiko batzuk ere jantuen.

U: Betiko moduan: zukua, ogi xigortua, kafesnea... Korrika hasi baino 3 ordu lehenago gosaldu behar denez, 7-k inguruan jaiki behar izan nuen gosaltzea.

## **Hainbeste korrikalarik parte hartu ahal izateko, nola antolatzen da irteera?**

U: Garai baten denak batera ateratzen ginen. Orain, ezinezkoa da eta aurreko urteko denboraren arabera kokatzen gaituzte: markarik hobereak dituztenak aurrean jartzen dira eta lehenengoak dira ateratzen; besteak berriz, atzean eta beranduxeago ateratzen dira.

## **Nolakoa da dortsala? Erakutsiko diguzu zurea?**

U: Dorsalak kolore desberdinetakoak dira; batzuk, berdeak; beste batzuk urdinak eta nirea, berdea da. Txip bat du eta horrek non nagoen lokalizatzeko balio du, izan ere, txip-ik gabe ez lukete jakingo nondik nora nabilen. Adibidez, txip-ik gabe karreran zehar Kurtsalean sartuko banintz ez lirateke konturatuko, baina txip honekin jakin dezakete non nagoen. Lehen txip hau zapatiletan eramaten zen. Dorsalean, gainera, lasterketa non hasten den jartzen du, ibilbide guztia eta bukaera azalduz, eta baita bakoitzaren datuak ere; adibidez, nongoa naizen, zenbat urte ditudan... gauza horiek.

## **Urduritasuna izaten duzu lasterketa hasi baino lehen?**

M: Gehienetan oso urduri jartzen naiz eta bezperan ez dut lo askorik egiten.

## **Behobia-Donostia lasterketan zeinekin atera zinen?**

M: Ordiziako lagunekin. Nirekin 61 urteko lagun batek korrika egin zuen.

I: Nik Beasaingo hotel batean egiten dut lan eta egun horretarako Madrildik, Bilbotik... jendea etortzen da gure hotelera Behobiako lasterketa egitea. Aurten 7 etorri dira eta horietako birekin atera nintzen.



### Zein egin zitzaizun aldaparik gogorrena?

M: Gaintzurizketakoa da handiena, baina niri Mirakruzkoa egin zitzaidan gogorrena, amaieran dagoelako segur aski.

U: Mirakruzkoa

### Jendeak asko animatzen al zaitu?

M: Bai, dortsalean zure izena azaltzen da eta jendeak irakurri egiten du eta zure izena esanez animatzen zaitu.

### Askok sufritu al zenuen lasterketan?

M: Aurten ez dut sufritu, baina orain dela 2 urte beroa zela eta, asko sufritu nuen.

I: Aurtengoan ez, oso lasai joan bainintzen.

U: Bai, aurten bai. Lasterketa aurretik erdi gaixo ibili nintzen, ezin ondo entrenatu eta... gero komeriak!

### Ze denbora egin zenuen?

M: 2 ordu eta 22 minutu.

I: 2 ordu eta minutu bat.

U: 1 ordu eta 30 minutu juxtu-juxtu.

### Zenbat aldiz hartu duzu parte Behobia-Donostia lasterketan?

M: 3 alditan.

I: 14 urtetan 13 aldiz egin dut. Urte baten ez nuen parte hartu lesionatuta nengoelako.

U: 15 aldiz.

### Noizbait izan duzu istripurik Behobia-Donostia lasterketan?

M: Momentuz ez.

### Behobiaz aparte beste lasterketaren bat egiten al duzu?

M: Bai, Ordiziako San Silbestrea eta Donostiako lilaioia.

U: Bai, maratonia behin baino gehiagotan egin dut, eta gu-txigatik bada ere, 3 ordutik ez jaistearen pena daukat.

### Zenbat karrera egin dituzu guztira?

I: Guztira 117 karrera egin ditut.

### Diferentzia handia al dago oraingo arropa eta lehen-goien artean?

I: Bai, izugarri. Lehen praktak eta kamiseta bat nahikoa ziren. Orain berriz, gerrikoa mobila eramateko, aurikularrak, galtzerdi luzeak, pultsometroa...

### Gutako batek parte har al dezake Behobia-Donostian?

I: Ez, hamasei urtetik gorakoek bakarrik parte har dezakete, baina txikiengatik beste lasterketa batzuk izaten dira.

### Duatloi bat antolatzeko zer izan behar dugu kontuan?

U: Kontuan izan behar dituzue dortsalak, aldaketak egiten diren tokiak...■

## Duatloiko logotipoaren lehiaketa

Urkipe herri eskolak antolatu behar duen duatloi probarako logotipoa aukeratzeko lehiaketa egin zen aurreko azaroan. Horretarako, logotipoak zer ziren eta zer adierazi behar zuten azaldu ondoren, haur bakoitzak bere logotipoa sortzeari ekin zion.

Lanak bukatu ondoren, ikastetxeko aterpean erakusketa bat egin zen lan guztiak eta haur guztiak lan guztiak ikusi ondoren bakoitzak beretzat egokiena zena aukeratu/bozkatu zuen. Bozketa egin ondoren, Uxue Arbilla eta Eleder Riañoren lanak, biak berdinduta, izan ziren hautatuak.

Beraz, hemendik aurrera duatloia iragartzeko eta azaltzeko 2 logotipo hauek erabiliko dira.■



# Jubilatuek martxan jarraitzen dute!

## **Andra Mari bezperako bazkaria mantendu dute**

Aurten, herri mailan Andra Mari jaiak ospatu ez baditugu ere, jubilatuek beraien usadioarekin jarraitzea erabaki eta hala egin zuten pasa den abuztuaren 14an. Aurten, 40 bat lagun elkartu eta aurrez dena prest utzita, lagun artean bazkaltzeko aukera aparta izan zuten.

## **Hutsik egin gabe bildu ziren Jubilatuen eguna ospatzeko**

Urriaren 1ean ospatu zuten jubilatuen eguna. Mezaren ondoren, hamaiketakoa izan zuten Bizi Nahi elkartearen, eta ostean bazkaria Nautikon. Aurten, 50 bat lagun elkartu dira, eta ederki pasatu dute! Bazkariaren gain, zozketak ere izan zituzten, eta ohiturari jarraituz, bi helduenei ordulariak oparitu zituzten. Bazkaria amaitu ostean, elkartera joan eta karta saioa ere egin zuten. Datorren urterako jendea animatzea baino ez da geratzen, beraz!

## **Herritik kanpo ere gustora ibiltzen dira**

09:00etan, Itsasondotik irteten eta Iratxera bidean abiatu ziren. Handik Arronizera joan eta olio fabrika bat bisitatu zuten. Bertan, olio nola egiten zuten ikusteaz gain, probatzeko aukera ere izan zuten. Bisitaren ostean, Lizarran azoka zegoela aprobeztatu, bueltatxo bat eman zuten, eta bazkalordua iristean, berriro ere Iratxera joan ziren. Bapoz bazkaldu ondoren, hainbat ekintza izan zituzten: bingoa, dantza saioa... 21:00ak alderako etxean ziren berriz, egun ederra igarota! ■





# Jubilatuen gimnasia: Idoia Jakarekin elkarrizketa

## Noiz hasi zineten gimnasia egiten? Zergatik?

Aurtengoa bigarren kurtsua da, urrian hasi ginen berriro. Tipi-Tapa ideia ona izan zen, taldeko kohesioa sortu zuen. Neguan eguraldi txarra egiten duela eta Tipi-Tapa egiteak pereza eman dezake... ongizate batzordetik gimnasia udal-etxean bertan egitea proposatu ziguten eta horregatik aurkeo urtean gimnasiari hasiera eman genion.

## Zenbat jubilatu elkartzan dira?

11-15 lagun, egunaren arabera. Iaz, Aramako taldetxo bat ere etortzen zen.

Konpromisoa hartzen dute gimnasiarekiko, sozialki gainera oso ondo etortzen zaie. Hemen beste konplizitate bat sortzen da, positiboki egiten da lana, ahal dugun bitartean eta bakoitzak ahal duena eginez, bere neurrian.

## Zer ariketa mota egiten dituzue?

Nik beti esaten dut kirola osasuna dela, ondo sentitzea. Soinketa terapeutikoa izan behar da beti, askok lesioak daukate... baina oso animatuak dira. Mina hartu gabe pisuekin, baloiarekin, gomarekin edo banda elastikoarekin egiten ditugu ariketak.

Gimnasia posturala, funtzionala, ergonomia, mugikortasuna, elastizitatea eta tonifikazioa lantzen dugu, kontzientziatik. Ondo ibiltzeko oinarri bat izan dadin nahi dugu, bakoitzak bere egunerokotasunean barneratzea, hemen ordu bat egoten baikara.

Ondo eginez gero osasun pila bat irabazten da.

## Pertsonalizatutako gimnasia al da edo denak berdina egiten dute?

Ez, ez, pertsonalizatutako gimnasia da. Bakoitzak bere lesioak eta mugak dauka. Ezagutzen ditut, osasun fitxa bat betetzen dute kurtsu hasieran. Hori da nire abiapuntua bakoitzarekin ariketak egiteko.

Orokorrean zerbikaleko arazo asko daude eta bukaeran lepoko lana egiten dugu, lasaigarria izan dadin.



## Zein onura fisiko ditu jubilatuentzat?

Hiru zutabe lantzen ditugu: batetik oxigenazioa, kontziente izan arnasa ondo hartzearen garrantziaz, bestetik postura ona edukitzearen garrantziaz jabetu, antigrabitatorioak, tonu muskularra, gihar estatikoak, indarreko giharrak, oreka eta indarra lantzen ditugu. Azkenik gorputzaren kontzientzia, hemen lan funtzionala, gihar estatikotik mobilizazio eta barruko giharretara, mugikortasuna landuz; sorbalda, aldakak, txorkatilak... azken finean artikulazioen lanketa.

## Uste duzu gimnasia egiteak onura psikologikoak badiutela?

Noski baietz!, Tipi-Tapara doaz soinketa eta gero, eta ondoren kafea hartzera. Horrela, beraien artean giroa sortzen da.

Gimnasia musika lasaigarriarekin egiten dugu. Egiten dugun gimnasia terapeutikoa da, beraien neurria eginda eta ondo sentitzeko helburuarekin.

Gehienetan borobilean bukatzen dugu, bata besteari masajeak emanez. Ondo pasatzen dugu, giro oso ona sortzen da eta horretarako eroso sentitu behar dira.

## Zer esango zenieke oraindik animatu ez direnei?

Animatzeko arrazoi asko daude eta!

Kirola egiteak ongizate handiagoa ematen dio bizitzari, hobekuntza emozional eta fisikoa, bakoitzak bere buruarekin ondo sentitzea ahalbidetzen duena.

Gimnasiara etortzen direnean hobeto ateratzen dira, ordu horretan lasai daude, ariketetan kontzentratuta eta gainontzeko kezak alde batera utzita.

Gauza asko konpartitzen dituzte, beraien artean animatzen dira, euskarri bat daukate, bakoitzak bere arazo fisikoak konpartitzen ditu, maitasuna eta afinitatea lortuz.

Elkartasuna sortzen da beraien artean. ■



## Arbelaren paisaiarentzat egindako plana: **Malkorra-Izarre**

**A**rbel-meategien ustiapenak sekulako garrantzia izan zuten 1870-1970 urte bitartean, tarte horretan Itsasondoko ekonomiaren bultzatzaile nagusia izan baitzen. Horretarako beharrezkoak ziren ekoizpen-prozesuak garatu izanak (erauzketa, garraioa eta manufaktura), jakina, aztarna nabarmenak utzi ditu Itsasondoko lurraldean, eta hala, arbelaren benetako paisaia eratu dute, Malkorra eta Izarre eremuetan batez ere argi eta garbi islatzen dena, baina baita herriaren erdigunean ere. Malkorra, hain zuzen ere, Murumendi magalean dago, eta haranaren behealdetik hasi eta 275 m-ko kotaraino hedatzen da. Mea-ustiategi hau armazoi baten bitartez komunikatzen zen berez fabrika zenarekin, eta armazoi horren irteera Bekokale izenez eza gutzen duguna da. Izarre, berriz, Murumendiren hegoaldeko magalean dugu, 160 m eta 300 m artean, urak Oria ibaira isurtzen dituen Izarre errekaen parez pare. Itsasondon aktibo egon ziren azken meategiak ditugu, gainera, eta horrexegatik, bertan kontserbatzen diren aztarna gehienak kronologikoki berriagoak dira. Izarreko mea-ustiategia aire-

tiko kable baten bidez komunikatuta zegoen haranaren behealdeko tailer-transformadoreekin, eta oraindik ere geratzen dira airetiko kable horren aztarna batzuk. Hain zuzen ere, haranaren behealdean, Oria ibaiaren eta errepi-dearen arteko tartean, fabrika eta etxebizitzaren eraikinak lerrokatzen joan ziren, eta halaxe ikus dezakegu Ibarren eta Bekokalen, nagusiki.

Horrek guztiak ondarearen, geologiaren eta ingurumena-  
ren ikuspegitik garrantzi handiko paisaia kultural bat eratu du, eta horrez gain, erraz interpretatu daiteke, eta dagoeneko oso ezagutza zehatzak ditugu horren inguruan. Gainera, paisaia berezi eta paregabea da, Goierriko gainerako meategi-paisaiekin osatzen dena: Mutiloa, Zerain eta Ormaiztegi, nahiz beste hauetan protagonista nagusia burdinaren ustiapena eta eraldaketa den. Dena den, zenbait xehetasunek zaildu egiten dute horren kudeaketa, esate baterako, zatirik handiena lursail pribatuen barruan egoteak edo elementu interesgarriak itxuraz sakabanatuta egoteak,



horiek ulertzea eta irakurtzea zailagoa bihurtzen baitute. Gainera, bai arbel-zirien fabrika eta bai armazioa ere konterbazio-egoera txarrean daude. Hondoratzeko batzuk ere gertatu dira, eta horren eraginez, erauzketa eremuan segurtasun-ezaren sentsazioa handi samarra da.

2017. urtean ibilbide-orri bat prestatzen aritu gara lanean, eta horren helburua kalitateko paisaia bat erdies-tea da, negatibotzat hauteman duguna zuzenduz eta alderdi positiboak indartuz. Laburbilduz, arbelaren paisaia horrek eta ingurumen eta kulturaren aldetik dituen balioek garrantzi handiagoa izatea lortu nahi da; ezaugarri eta berezitasun horiek indartu nahi dira eta, bide batez, pertsonen eta animalien segurtasuna bermatu, paisaia horren barruan sartzen direnean; paisaiaren biodibertsitatea eta geodibertsitatea hobetu, ondarearen ikuspegitik garrantzitsuenak diren elementu eta/edo egiturak eraberritu eta industria-erakinak eta etxebizitzak herri-egituraren eta landa-egituraren barruan iraunarazi.

Planak 35 jarduera finkatu ditu, eta honako ildo estrate-giko hauetan bil daitezke: ingurumena-paisaia, ondarea, hiri-eremuaren eta paisaia natural eta kulturalaren antola-keta, paisaiaren interpretazioa-zabalkundea-ulermena eta, azkenik, xedetzat berez paisaiaren kudeaketa izango dutenak.

2018. urtean sartu berri gauden honetan, garaia iritsi zaigu paisaia kultura interesgarri hau hobetu dadila erdie-steke lehen urratsak egiten hasteko. Jarduera horiek burutzeko erritmoa, jakina, dagoen kudeaketa-ahalmenaren eta zuzkidura ekonomikoaren mende egongo da, baita beste diru-laguntza batzuk erdiesteke aukeraren mende ere.

Eremu hauetan lan egiten jarraitzea proposatzen dugu: ezagutzak eta ikerketak sakondu, paisaia geureganatu eta ingurumenaren eta ondarearen balioak hobetzearekin lotu-riko exekuzio-proiektuak sustatu.

Jarraian, lehentasunezkoztat jotzen ditugun jarduera bat-zuk zehaztuko ditugu: Galerien inbentarioa eta planimetria. Azterketa honetan horiek duten arriskuari buruzko ikerketari emango diogu garrantzia, eta lehen metroetan gutxienez (50-100 m) sartzeko aukera eskaintzen dutenak hautatuko dira; horrez gain, erauzketa-eremuan lur-irristatzei buruzko azterketa geologikoa egingo da.

Paisaia ezagutaraztearekin eta herritarrek bereganatze-arekin loturik, belaunaldien arteko tailer bat egitea proposatu da, eta horren barruan, lanaren memoria landuko da arbel bat "ekoizten" den bitartean. Itsasondon egin zire-nak eredutzat hartuz: Arbeletik tabletera. Arbelaren



jarduerarekin loturiko elementu eta leku asko eta asko dagoeneko desagertuak daudenez gero, edo identifikatzen oso zailak direnez gero, leku estrate-gikoetan argazki-pane-lak eta interpretazio-panelak kokatzea proposatzen da, gure esku dugun argazki historikoen bilduma garrantzitsua era-biliz horretarako.

Arlo teknikoan, lehentasunezkoztat jo dira honako jar-duera hauek:

- Paisaia barruko zaborrak eta hondakindegia garbi-tzea.
- Armazioa berreraikitzea eta horren altxamendu plani-metrikoa egitea.
- Izarre errekarren biodibertsitatea hobetzeko proiektua. Eremu honetan, arbel-zirien fabrika finkatzea aurrei-kusten da.
- Bekokaleko etorkizuneko urbanizazioa egiten denean, ingurune horren memoria eta arbelaren helmugako galeriaren berreskurapena kontuan hartu beharko dira.

Planak okupatutako ia eremu guztia lursail pribatuen barruan dagoenez, jabeekin harremanetan hasi beharko dugu, alde batetik paisaia hori hobetzen lan egiteak nolako garrantzia duen jakinarazteko eta, bestetik, inguru horietan jarduteko aukera emango duten lankidetzak publiko-priba-turako baliabideak antolatzeke.

Garrantzi handikoa izango da, halaber, bai berez paisaia dena eta bai ondare-elementuak ere udal planeamendu-aren barruan sartzeko.

Badugu nondik hasi. Ekin lanari! ■


## Harrera eguna

J oan den azaroaren 25ean izan genuen aurtengo 2. Harrera Eguna, eta denok dakigun modura, egun honen helburua da Itsasondora bizitzera etorri diren eta bertan erroldatu diren pertsoneri ongi etorria ematea, elkar ezagutzeko, informazioa eskaintzea eta euren iritziak, eskaerak eta beharrak jasotzeko bideak erraztea.

Harrera udaletxean egin genuen, eta gonbidatutako herritarrez gain, bertan izan ginen ongizate lan taldeko kideak, gizarte langilea, eskolako irakaslea eta euskara taldeko ordezkaria. Herriko Baliabide Gidaz gain, herriko instalakuntza eta funtzionamenduaren inguruko informazioa eskaini zitzaizkien gonbidatuei. Ondoren, herria ezagutzeko bueltatxo bat eman genuen: frontoia, herriko tabernak, jubilatuen egoitza, Lurdes janaridenda, mediku etxea, farmazia, elkarte gastronomikoa, ikastetxea, haurreskola, gaztetxea... ezagutuz.


2017an, guztira 16 pertsona etorri dira bitzitzera, eta denok gonbidatu genituen.

Hurrengo Harrera Eguna 2018ko ekainaren 13an izango da, eta denok zaudete gonbidatuta gure herrira bizitzera datozenen ongi etorria egitera! ■



## Azaroaren 25a

E makumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Egun hau “ospatzen” den bitartean, seinale txarra. Munduan 18 segunduro emakume bat erasotzen dute. Badira milaka motibo kalera atera eta egoera salatzen. Horrez gain, era horretako indarkeriarik berriro gerta ez dadin, badugu lana gure etxeko txikiak, helduak eta geure buruak hezten. Atzoko borroka da, gaurkoa. Ospatzekoa izango da benetan indarkeria amaitzen den unea, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren beharrik izango ez dugun unea. ■



# Hondakin organikoak



Beiti kalen egindako billera



Jubilatu elkartearen egindako billera



San Juan auzoko bizilagunekin



Goiko kalen

**G**aur egungo gizartearen arazo larrienera bat etengabeko hondakinen sorrera da. Biztanleria kopuru geroz eta handiagoak, batetik, eta gaur egungo kontsumo ereduak, bestetik, geroz eta hondakin kopuru handiagoa sorrarazten dute, eta hondakin horien kudeaketa lehentasun handiko kezka edo gaia bihurtu da. Hori dela eta, gizartearen zein ekosistemaren eta biodibertsitatearen kalteak ekiditeko, tokiko administrazioek bi erronka garrantzitsu dituzte aurrean: prebentzioa/murrizketa bultzatzea eta sortutako hondakinen kudeaketa eta tratamendua optimizatzea. Etxeko hondakinen artean esanguratsua da materia organikoaren presentzia, sortutako hondakin guztien %40a osatzen baitu, eta, bere ezaugarriak direla eta, hondakin organikoak era desegokian kudeatzeak ingurugiroan kalte handiak sor ditzake.

Hori dela eta, Europar Batzordeak hondakinen sorrera murrizteko eta horien kudeaketa hobetzeko lege sorta bat ezarri zuen.

Itsasondoko Udalak Europako helburuak eta legedia beteta ditu jadanik. Ez ordea, ingurumen jasangarritasunari dagozkionak. Gaur egun Itsasondon bildutako hondakin organikoak tratamendu planta handietara bideratzen dira, baina, gaian adituak direnen artean bada adostasun orokor bat: hondakinak jatorrian bertan eta modu erraz batean tra-

tatzea ahalbidetzen duten sistemak dira ingurumenari lotutako kalteak saihesten dituzten sistema bakarrak. Hori dela eta, Itsasondoko Udalak etxeko zein auzoko konpostajearen bidez soberakin organikoak kudeatzeko urratsa eman du.

Hiru auzoko konpostaguneak jarri dira martxan, eta herriko berrogei bat familiak hartzen du parte horietan. Gainera, horrela nahi duten herritarrek etxeko konpostajea egiten dute.

Horrekin batera, pasa den urrian udalak informazio kanpaina bat jarri zuen martxan, eta hitzaldi batzuk antolatu ziren aditu baten eskutik. Azaroan zehar herriko auzo eta talde ezberdinetan informazio batzarrak ere egin ziren.

Kanpainaren balorazioa oso positiboa izan da, bertan herritar askok parte hartu baitzuen, adin zein sentsibilizazio guztietakoak.

Bilera horietan herritar askok erakutsi zuten sistema berri honekiko interesa eta ondorioz, abenduan zehar konposta egiteko beste hiru gune berri ezarri eta martxan jarri dira.

Hala ere, Udalarentzat kopuru hori ez da nahikoa, sistema hau benetan eraginkorra izateko beharrezko baita gutxienez herritarren %60 inguruk parte hartzea. Hori dela eta, Udalak kanpainarekin jarraituko du eta biztanle guztiak bertan parte hartzera animatu nahi ditu. ■

## Gaztain jana

**A**zken urteotako ohiturari eutsiz, azaroaren 4an urteroko Gaztain-jan festa ospatu genuen. laz bezala, herriko plazan egitea erabaki zen, pentsatu bainuen jendea gerturatzeko aukera gehiago zegoela, eta eguraldi txarra eginez gero, leku aproposa zela.

Eguraldiak lagundu ez zuenez, arratsaldean mendi buelta egiteko plana ezin izan zen burutu, baina aurreikusita zegoen bezala, 17:00etan elkartu eta Kulturgunean pelikula bat ikusi zuten haurrek. Gustura ibili ziren epeletan.

Bitartean, herriko plazan, suak pizten hasi ziren, gaztainak 19:00ak alderako prest egon zitezten.

Nahiz eta euria eta hotza egin, jende mordoak elkartu ginen, eta suaren epelean, gaztaina, txorizo, txokolate pintxo, sagardo eta ardo artean giro polita izan genuen.

Zorionak guztioi egindako lanarengatik! Festa antolatzen duten ama eta aita guztiei gure eskerrik beroenak. Zuek gabe, ezinezkoa izanen zen!

Datorren urtean berriro elkar ikusiko dugulakoan, mila esker denoi! ■



## Olentzeko eta Mari Domingiren etorrera

**A**urten ere ohitura jarraituz, Itsasondoko haur eta guraso, herritik kantueskean ibili ginen. Goiza ondo hasteko, eztarria salda beroz prestatu eta ondoren herriko txokoak kantuz alaitu genituen. Bideko leku ezberdinetan indarrak berritzeko aukera eman ziguten. Azkenik Olentzeroren eta Mari Domingiren bisitarekin, hauen muxuekin eta goxotasunarekin bukatu zen goiza. ■



# Oskar San Martin

*Tolosan jaio zen, 1972an. Hamahiru urte zituela Donostiara joan zen bizitzera bere familiarekin. Geroztik Usurbilen eta Ordizian ere bizi izan da. Martxotik Itsasondon bizi da. Ogibideaz informatikoa da, CAFen egiten du lan. Hemen bere txakurrak paseatzen ikusi dezakegu.*



## Noiz etorri zinen Itsasondora?

2017ko martxoaren 25ean.

## Non bizi zinen lehen?

Berez Donostian jaioetakoa naiz, gero nire kabuz Usurbilen bizi izan naiz. Handik Ordiziara joan nintzen, azken urteetan han bizi izan naiz eta Ordiziatik Itsasondora etorri nintzen bizitzera.

## Zergatik erabaki zenuen Itsasondora etortzea?

Etxeak badauka lorategi txiki bat eta txakurrak dauzkadanez, hor eduki ditzaket.

## Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egunaz?

Nautico-n bazkaldu nuela.

## Zer lanbide duzu?

CAFen informatikoa naiz.

## Zer botatzen duzu faltan Ordiziatik?

Ordizia pixka bat handiagoa da, jendearen mugimendua sumatzen duzu, zerbitzu gehiago dauzka... baina azken finean antzekoa.

## Zer ez zaizu gustatzen Itsasondotik?

N-1 errepedeko soinua.

## Eta zer duzu gustuko?

Herri txiki baten lasaitasuna.

## Zein zaletasun dituzu?

Zinema, musika, kirola, mendian ibiltzea...

## Janari bat.

Txuleta on bat.

## Itsasondoko/Goierriko gustuko txoko bat.

loiako bidean dagoen txoko bat.

## Amets bat?

Nagoen bezala gelditzea...

## Jaso duzun oparirik bereziena?

Ekain, semea.

## Zeri diozu beldurra? Eta zer gorroto duzu?

Langabeziari diot beldurra eta hipokresia gorroto dut.

## Zerk sortzen dizu irribarrea?

Txiste on batek.

## Itsasondon biziko ez bazina?

Donostian biziko nintzateke. ■

# 2018an helduko diren teknologia gailu berriak

*Dagoeneko 2017a bukatu eta 2018an sartu gara, eta gezurra badirudi ere, tresna berezi batzuk modan jartzeko asmoz datoz.*

**A**urreko urteetan, mugikorak, bideo-jokoak, telebis-tak e.a. izan ziren protagonistak. 2017an, aisialdirako gailuak izan ziren iraultza handiena, beraien produktuak saltzeko eta gailurrera iristeko. Hala nola, 4K telebis-ta/monitorean azkeneko bertsioak ikusi izan dira, Samsung-en eta Apple-en urteroko borroka beraien mugikorrekin eta Sony-ren Playstation 4 pro bertsioa dira adibide batzuk, aurten ikusitako guztiaz aparte.

Hala ere, 2018an badirudi beste aparatu batzuek ere joko handia emango digutela. Esate baterako, gero eta gehiago ikusiko dira 3D inprimagailuak. Jadanik, eskola askotan jarri dituzte, eta hainbat enpresatan ere hasi dira erabiltzen. Horretaz aparte, erabilera pertso-


nalera ere iristen ari da apurka-apurka. Norberak, bere piezak edota irudiak 3Dn egiteko aukera emango du, esate baterako, jostailuzko plastikozko panpinak egiteko.

Beste aldetik, Xiaomi Txinatar enpresak, mugikorrak aparte, duela gutxi erloju bat kaleratu zuen kirola egiteko, pausoak, bihotzeko taupadak.. kontatzeko gai dena. Bada, duela gutxi kaleratu dituzte korrika egiteko Xiaomi zapatilak, bluetooth eta gps sistemarekin. Erlojuaren funtzio berdina edo zehatzagoa dute, baina kasu honetan, zapatiletan.

Hala ere, urtero bezala, mugikorrak hitz egiteko asko emango digute. Ez dakigu 2018. urtean iritsiko diren, baina gertu daude mugikor flexibleak. Hau da, doblatu daitezkeen mugikorrak. Akabo pantailak hausteko beldur hori. Mugikor hauek flexibleak eta pisu aldetik oso arinak izango dira. Hori bai, prezio aldetik oso garestiak izango dira espero da.

Dagoeneko badirudi horietan izango direla jendeak gehien espero dituen produktuak 2018an. Hala ere, aparailu asko ez dira aipatu, eta seguru euren txokoa izango duela 2018an gehien salduko diren produktuen zerrendetan.

Zuek zerbait zehatza erosteko zai al zaudete? ■



3D inprimagailu bat



## 2017ko Urkiko iraileko jaiak

Irailak 14, Gurutze Deunaren egunean, eman zitzaien jaiari hasiera, meza ondorengo hamaiketakoan elkarteko jangela bete zelarik. Eguerdian, bazkaria egin zen eta iluntzean erromeria Jon Ostolaza eta Unai Narbaiza trikitilariekin.

Irailak 16an lagun arteko afaria egin zen elkartearen eta Iñaki Laja eta Andoni Larrañaga trikitilariekin erromeria izan genuen goizalderarte. Iñaki Laja-ren azkeneko emanaldia izan zen Urkiko jaietan, erretiratu egiten da eta. Bere erreperitorio handi eta aberatsetik saiatu zen elkartu ginen guztiak dantzari jarri eta gozarazten.

Irailak 17, igandean hamaiketakoa eta bazkaria izan ziren lehenik, jende ugari bildu zelarik. Arratsaldean Herri Kirolak izan ziren. Arrospide eta Txikia IV-a, Ugarteburu eta Larrañagaren aurka aizkoran, lehenengoak nagusitu zirelarik lehia estu baten ondoren. Tartean Goenatxo III-a, harri jasotzaileak erakustaldiak egin zituen 3 harri motekin.

Iluntzean erromeria egin zen egun guztian zehar trikitia jotzen aritu ziren Laja eta Lutxurdio trikitilariekin. Aspaldiko urtetan izan den erromeri jendetsuena izan zen, plaza dantzarietz bete-bete eginda egon zelarik.

Urkiko jaien alde zoketatzen den Saskiaren zoketa egin ondoren, zorteduna, Lontxo Esnaola izan zen. ■



## Herriko jaiak, jendetsuak eta giro ederrean aurten ere!

Ilailaren 21etik 24ra herriko jaiak ospatu genituen. Hasiera ofiziala ostiralean izan bazen ere, ostegunean, jubilatu, haur eta gurasoak Bizi Nahi elkartearen elkartu ziren eta erroskillara goxo-goxoak egin zituzten, festei hasiera emanaz.

Ostiral arratsaldean jende ugari elkartu zen plazan, lehendabizi haurren jolasetarako eta jarraian Ongizate batzordeak prestaturiko pregoia entzun eta jaiari hasiera ofiziala emateko. Pregoi ederra izan zen, koloretsua, anitza eta alai! Tokaren ondoren, 100 bat lagun bildu ginen herri afariaren bueltan. Amaitu ostean, Joxe Mendizabal izan genuen lehendabizi kantu saioarekin eta jarraian musikarekin gaua alaitzen.

Larunbatean, aje eta guzti, mozerro dotorez bete zen plaza. Paellek itxura bikaina zuten, eta sabelak bete ostean, batukada tailerra izan genuen. A zer arrakasta! Haur, gazte eta heldu elkartu, eta zarata pixka bat ateraz, erritmo biziak sortu zituzten. Afariaren ostean, Elektrotxufila elektrotxanga izan genuen plazan gaua luzatzeko asmoz, eta baita lortu ere, gazteak nagusitu ziren eta!

Ilgandean, ohitura den bezala, ez zen hamaiketakorik falta izan, eta puzgarrietan atsedentxo bat hartuz gerturatu ziren haur eta gurasoak ere. Oraindik jai giroan, kantu bazkari ederra izan genuen Aitor Fu-



rundarenaren eskutik, eta jarraian herriko gazteek erakustaldi polita egin zuten pilota partiduetan. Buruhandien ostean, Ongizate batzordekoak berriro ere udaletxeko balkoian genituen, oraingo honetan jaiari agur esateko; baina, aurretik, datorren urterako pregoilaria izendatu zuten: ARBELAITZ ELKARTEA!

Azken horien eskutik amaitu genituen jaiak sargardo pixka bat edanez, eta datorren urterako lan pixka bat jarriz. Beraz, badakizue: astindu buruak, jaiak berriro ere izango ditugu eta! ■



## *Karramarroa antzezlan*

**A**urtengo antzerki saioko protagonista Eneritz Arretxe aktorea izan zen, "Karramarroa" antzezlanarekin. 40 bat urteko emakumea hondartza batean kokatu eta inguruan ikusten zuenari buruzko gogoeta ekarri zuen gurera, gai ezberdin asko landuz, guztia ikuspegi kritiko batetik, eta umorez, noski. ■



## *Gotzon herriko artistaren artelanak ikusgai*

**A**zaroaren 27tik abenduaren 2ra bitarte, kulturegunea koadro ederrez bete zizun Gotzonek. Bartzuk zuri-beltzean, besteak koloretan, baita erliebean ere. Itsasondoko txoko zoragarri asko ikusi ahal izan genituen bertan, eta baita gure herria nola aldatu den antzeman ere. Jende ugari bisitatu zuen erakusketa, eta asko gustatu zitzaigun guztioi. Mila esker Gotzon, hurrengoaren zain geratuko gara! ■



## Kantu afaria

**A**zaroaren 17ko arratsalde-gau hotza Itsasondoko kaleetan eta barruak nolabait berotu behar; horretarako, lagun onak suertatzen dira kantua eztarria berotzeko eta jan-edan goxoa sabela berdintzeko. Kuxkuxturekin batera kantu afarira etorri ziren 60 bat lagunek laster urrundu zituzten gorputzeko hotzak eta lagun giro ederrean joan zen gaua.

Lehenik, Kaxintane tabernan elkartu eta Itsasondoko kaleak alaituz Arbel-aitz Elkartera bidean kantu poteoa egin zuten, Kuxkuxtu txarangarekin batera. Elkartera iristearekin bat afari goxoaren usaina giroan, ordurako gosea ere lagun. Afaritan, janaz gain, Kuxkuxturen kantu eta musikaz gozatzeko aukera paregabea izan zen. Kantu saio bikaina egiteko aukera izan genuen; artistak dira gero Kuxkuxtuko lagunak, gu ere ez gara motelak gero. Saiatzearen ondorioz urtez urte hobeto abesten dugun susmoa hartuta gaude. Ez dezagun saiakera horretan amore eman; datorren urtean gehiago, eta ahal bada, hobeto. ■



## Pintxopotea

**I**tsasondoko jaiak amaituta deskantsurako gogo gutxi izaten dugu batzuk eta herrian giroa mantentzeko asmoz, pintxo-pote ederra izan dugu beste urte batez. Arbelaitz elkarteak, Nautikok, Jubilatu Elkar-teak eta Kaxintanek pintxo goxo goxoak prestatuta jende ugari bildu izan da urriko ostiraletan, herrian zehar. Datorren urterako gogoz geratu gara! ■



## ***Badira urte batzuk hasi zirela... eta gu jarraitzeko prest gaude!***

**H**orrelaxe zioen erakusketak, eta ikusi baino ez dago jarraitzeko gogoia eta sasoia badaukagula. Urteak pasa dira Itsasondon talo festak egiten hasi ginenetik, eta hasiera hartako batzuek jarraitzen dute hor, beste batzuek ez; baina, guztiak oroitu eta guztiei eskerrak emateko asmotan, aurren, argazki zaharren erakusketa txiki bat jarri dugu.

Jende ugari bildu zuen abenduaren 2ko ekintza honek, hotza ekiditeko asmoz taloak jatera gerturatu zirenak ez baitziren gutxi izan. Plantxaren inguruan taloak egin eta egin aritu zen, gelditu ere egin gabe, emakume talde bat, eta herriko labeak ere bete zuten bere funtzioa, generoa amaitu zen arte, behintzat.

Negu giro ederrean eta hotzari aurre egiteko asmoz, arratsalde ederra igaro genuen frontoian. Jaia amaitzeko, txikienek karaoke ederra muntatu zuten; elur gehiagorik ez zuen egin, eta seinale ona da hori! ■



## ***Gabonetako kantu eskea***

**U**rteroko ohiturei jarraituz, eguberri bezperan, ilusioa eta esperientzia uztartuz lagun talde bat bildu ginen kantuan.

Goizean gazteak, gero helduak. Abestiak jostari, zuzendaria eta lau abotsetan doinuak sintoni gozoan, herri guztian zehar alaitasuna zabaltzen saiatu ginan. Lore Txuri, Otamendi, Etxeberri, Eliz Bide, Bide Gain, Beheko fabrika... ("gabon gaaba ospatutzeeko...")

Soka eten ez dadin jarraitu dezagun kantuan, poza eta berotasuna soma dezagun inguruan. ■





( natura )

## James Hutton, Bibliaren denbora motz geratu zitzaion lehen zientzialaria

**1** 747ko Eskozian, Hutton natura inguruneak kezkatzen zuen Medikuntzan graduatutako gazte bat zen. Garai hartan, lur-raren historia ez zen zientzian oinarritzen, Biblian baizik. Lur-raren hasierako data zehatza ere ez zen falta: Kristo aurretiko 4004.urteko urriaren 22an, larunbata, egin omen zituen Jainkoak lurra eta itsasoak.

Behatzaile aparta gure James, euritako urak lurra ibaian behera etengabe eramaten zuela eta, dena galtzean lur-gozoak harri-zuri bihurtuko zirelako ideiak larritzen zuen. Jainkoak erabat antzu bihurtuko zen mundu bat egin zuela zirudien, eta, bere ustez, horrek ez zuen zentzurik.

Geruza lerrokatu desberdinak dituzten arrokak aztertuz (sedimentarioak), ohartu zen urak eramandako jalkinak nonbat pilatzen eta harkaitzak sortzeko behin eta berriz trinkotzen zirela.



Berak erakutsi zigun lur-raren sorrera eta desegitea ez direla bat-bateko gertaera dramatikoak, etengabe ematen diren ezin sumatuzko ekintza txiki eta motelak baizik. Lurra iraganeko hondakinetik sortzen da, ziklo geologiko bat bestearen ondoren etengabe. Horren arrazoietakoa bat plaka tektonikoen mugimendua da, baina Hutton-ek ez zuen hori jakiteko modurik. Hala ere, nahikoa sen izan zuen ikusten ari zena ulertzeko, jarraiko mundu osoen sorrera eta bukaera.

Hori guztia ez zetorren bat Biblian munduaren kreaizioari buruz adierazitakoarekin, eta, orain dela 220 urte, halakoari eustea heresia zenez, ateotzat salatu zuten. Hala ere, ez zuen etsi, eta bera baino lehen inor ikusteko gai izan ez zena erakutsi zigun: lur-raren (eta unibertsoaren) adina aurrera eta atzera luze baino luzeago zabaltzen dela (denbora sakona), eta arrokei begiratzuk aurkitu, alajaina!

Munduari buruz hau esan zuen: "Ez dago sorreraren aztararik, ez eta bukaera baten perspektibarik ere". ■

( ennezeta )

## Kimu, brie gazta birrineztatundun eta franbuesa mermeladadun entsalada

### Lau lagunentzako osagaiak:

- 8 Brie gazta zati.
- 4 pertsonentzako entsalada "mezcluma", kanonigoak eta rukula.
- Cherry tomateak.
- Brick pasta hosto erdia.

### Ozpin-olioa egiteko osagaiak:

- 2 koilarakada franbuesa mermelada.
- 4 koilarakada sagar ozpin.
- 8 koilarakada oliba olio.

Apaintzeko, erredukzioak, alpapa hozituak edota kalabaza pipak erabili daitezke. Bestalde, gazta frijitzeko, irina, arrautzak, ogi birrindua eta ekilore olio beharko ditugu.

Entsalada ontzi batean entsalada "mezclum"-ari kalabaza edota ekilore pipak gehituko dizkiogu, baita tipula kurruskari pixka bat ere. Mahaspasak edota sagar zati batzuk ere gehitu daitezke.

Bol batean, ozpin-olioa osagarri guztiekin emulsionatuko dugu, guztiari gatz pixka bat gehituz. Ondoren, entsalada "mezclum"-a gozatuko dugu, dena ondo nahasiz.

Entsalada plater indibidualetara atera eta aurrez birrineztatu eta frijitu dugun gazta jarriko diogu gainean, eta cherry tomateak edota hozituak (germinados) erabiliz apaindu dezakegu platera.

Azkenik, labean eginiko brick pasta botako diogu gainetik, xehatuta edota bouquet-ean txertatuz.

On egin! ■



Juanan Jiménez  
Altamira jatetxea. Ordizia  
677 293 697

## Euskararen atala

### Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitez zuzentzen!

| Euskara "makarronikoa"                                   | Euskara txukuna   |
|--|---|
| Hi, hasi hadi ya,kojon!                                  | Hi, hasi hadi behingoz, dedio!                                  |
| Beste egunean gertatu zitzaidan.                         | Lehenago egunean gertatu zitzaidan.                             |
| Bilboko biztanleriak behera egin badu, Gasteizkoak gora. | Bilboko biztanleriak behera egin du: Gasteizkoak, berriz, gora. |

## Euskaraz bai, umorea ere bai

Bi emakumek elkarrekin topo egiten dute, eta kontu mordo bat esan ondoren, batek:

– Zer moduz hire senar Lontxo? Operaziotik ondo gelditu al den?

Eta besteak:

– Egia esateko, ezertarako balio ez duala zegon. Hanka batean erreuma, bestean gota eta erdian ni gota!

## Murala amaituta!

2017. urtean, euskararen erabilera hobetzeko asmoz, plazako muralaren proiektua martxan jarri genuen Euskara Taldeko kideok, beste eragile batzuekin batera. Arbela jarri bagenuen ere, apaintzea falta zitzaigun, eta geure buruak artistatzat ez ditugunez, bila hasi ginen. Ez genuen urrutira joan beharrik izan, ordea, Kaxintanen bertan baikenuen pertsona aproposa! Eskerrik asko Jorge zure lanagatik, primeran geratu da, bai horixe! Orain, guztion ardurara izango da hau elikatzea; beraz, badakizue, entzuten dituzuen esaldi edota esamolde okerrak hartu eta txukun idatz itzazue, guztiok baitugu ikasteko zerbeit.

## Euskararen erabilera datuak itsasondon

UEMAk hala eskatuta, 2017an euskararen kale erabilera datuak jaso ditu Soziolinguistika Klusterrak. Azterketa hau UE-MAko udalerrietan eta Tolosaldean egin dute, eta, beraz, Itsasondon ere emaitzak izan ditu.

Egindako neurketa honetan, 994 elkarrizketa hartu dira kontuan. Horietatik 813 (%81,80) euskaraz izan dira, 178 (%17,90) gaztelaniaz eta 3 (%0,30) beste hizkuntza batzuetan.

Datu orokor horiek, baina, badituzte hainbat berezitasun:

Adinari erreparatu gero, haurrak (%89,40) dira euskara gehien erabiltzen dutenak eta adinekoak (%70,20) gutxien. Bestalde, sexuari begiratzen badiogu, Itsasondoko gizonezkoek gehiago erabiltzen dute euskara emakumezkoek baino. Azkenik, haurren presentziak elkarrizketa hauetan duen eragina ere kontuan hartu da. Horrela, ikus dezakegu helduen artean euskararen erabilera gaztelaniarena baino altuagoa dela; hala ere, nahasian, hau da, nagusien elkarrizketetan haurrak sartzen direnean, euskarak nabarmen egiten du gora eta gaztelaniak behera. Beraz, plazako muralak ongi dioen bezala: "Guri euskeraz ta zuen arten zeatik ez?".

Emaitzak onak direnik ezin dugu ukatu, eta berri pozgarria da euskararen alde egunero jarduten dugun guztiontzat. Hala ere, beti dago hobetzeko zerbeit; beraz, ez utzi euskaraz aritzeari, euskaraz bizitzeari, euskaraz hitz egiteari, gure altxorra da eta!

## Albisteak

Euskararen jatorriari buruz diharduen bideo bat zeresana ematen ari da Interneten azken egunetan.

**Basque - A Language of Mystery (Euskara- Hizkuntza misterioetsua)** izenburua duen bideoa. **Paul Jorgensen** hizkuntzalari kanadarrarena da, eta maiatzaren 4an argitaratu zuen Lang Focus izeneko Youtubeko bere kanalean.

Aipatu kanalean, Jorgensenek mundu zabaleko hizkuntzen gainean dituen ezagupenak adierazten ditu, eta mintzagai dugun honetan, euskara da protagonista. Bertan, modu errazean azaltzen ditu hizkuntza horren inguruan dauden berezitasunak. Informazioa About Basque Country blogak argitaratu du.

Bideoa ingelesez dago eta 9 minutu irauten du, eta dagoeneko 200.000 ikustalditik gora izan ditu.



## Oharrak



### UDALAK LABE INDUSTRIALA EROSI DU

Itsasondoko Udalak, Festa batzordearen bitartez, labe industrial bat erosi du. Herriko edozein elkarte erabili dezake, herriko edozein ekintzatarako. Labea erabiltzeko, eskaera orria bete beharko da, eta erabilpen araudia eskuragarri dago udaletxean. Animatu!



### MATERIALA KONPARTITZEKO ETA BIZIKLETAK GORDETZEKO GELA

Udalak materiala konpartitzeko eta bizikletak gordetzeko arautegia onartu zuen. Dagoeneko, lokala prest dago, eta interesatuak udaletxera joan daitezke eskaera inprimakia betetzera. Araudiak 2017ko irailaren 15eko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, eta horien kopia udaletxean eskuratu daiteke.

## Kultur Agenda

### URTARRILA

- 05 Herri ekimena errifaren zozketa
- 09, 16, 23, 30 Soinketa (16:00) eta Tipi Tapa paseoa (17:00 plazan)
- 12 Hitzaldia | Itturri txiki guraso elkarteak antolatuta
- 15 Lurralde eta hirigintza lan taldea | 19:00etan udaletxean
- 17 Herri Bizitza lan taldea | 19:00etan udaletxean
- 17 Ongizate lan taldea | 19:00etan udaletxean
- 20 Makrobiotika tailerra | Udaberriko sukalde  
Euskal Herriko mus txapelketa
- 25 Bingoa (17:00 jubilatuen elkarteon)
- 31 Memoria tailerra (18:00 jubilatuen elkarteon)

### OTSAILA

- 02 Ijitto eguna
- 06, 13, 20, 27 Soinketa (16:00) eta Tipi Tapa paseoa (17:00 plazan)
- 12 Lurralde eta hirigintza lan taldea | 19:00etan udaletxean
- 14 Herri Bizitza lan taldea | 19:00etan udaletxean
- 14 Ongizate lan taldea | 19:00etan udaletxean
- 21 Iñauterietako sukalde tailerra
- 22 Bingoa (17:00 jubilatuen elkarteon)
- 24 Makrobiotika tailerra | Udako sukalde
- 28 Memoria tailerra (18:00 jubilatuen elkarteon)

### MARTXOA

- 06, 13, 20, 27 Soinketa (16:00) eta Tipi Tapa paseoa (17:00 plazan)
- 08 Emakumearen nazioarteko eguna | Afaria Arbelaitz elkarteon
- 09 Hitzaldia | Itturritxiki Guraso elkarteak antolatuta
- 12 Lurralde eta hirigintza lan taldea | 19:00etan udaletxean
- 14 Herri Bizitza lan taldea | 19:00etan udaletxean
- 14 Ongizate lan taldea | 19:00etan udaletxean
- 24 Makrobiotika tailerra | Aste osorako menua prestatzen ikasi
- 28 Memoria tailerra (18:00 jubilatuen elkarteon)
- 29 Bingoa (17:00 jubilatuen elkarteon)

## Telefono interesgarriak



|   |                   |
|---|-------------------|
| <b>Udaletxea</b>                        | <b>943 881170</b> |
| • Gizarte Langilea                      |                   |
| • Udal Arkitektoa                       |                   |
| • Epaitegia                             |                   |
| -----                                   |                   |
| <b>Haurreskola</b>                      | <b>943 164831</b> |
| <b>Herri Eskola</b>                     | <b>943 887704</b> |
| <b>Arbel-Aitz Elkarte</b>               | <b>943 881339</b> |
| <b>Lurdes Janari Denda</b>              | <b>943 885236</b> |
| <b>Arrastoa Botika</b>                  | <b>943 882148</b> |
| <b>Medikuarenean Txanda Hartzeko</b>    | <b>943 007635</b> |
| <b>Kaxintane Taberna</b>                | <b>606 756551</b> |
| <b>Nautiko Taberna / Izaskun Hotela</b> | <b>943 880012</b> |
| <b>Izaskun Ilepaindegia</b>             | <b>943 160285</b> |
| -----                                   |                   |
| <b>Sasieta</b>                          | <b>943 161555</b> |
| <b>Traste Zaharrak</b>                  | <b>943 161590</b> |
| <b>Taxi (Ordizia)</b>                   | <b>943 881486</b> |

## itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria (( 38. zk. )) Urtarrila-Apirila 2015

### Ale honetan parte hartu dutenak:

Amaia Salegi  
Asier Bazaga  
Belen Mendizabal  
Bizi Nahi jubilatuta elkarte  
Danel Etxeberria  
Erkuden Mendizabal  
Eskolako haurrak  
Haurreskolako hezitzaileak  
Iñaki Aizpuru  
Iratxe Ibarra (UEMA)  
Itturritxiki Guraso Elkarte  
Jesus Mari Elizegi  
Jose Luis Aranburu  
Juanan Jimenez  
Maddi Alberdi  
Maite Lasa  
Niko Rodriguez  
Ruth Gomez  
Saioa Garbizu  
Unai Aldasoro  
Yoli San Sebastian

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriatik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN:  
SS-297-2010 2171-5572



Gipuzkoako Foru Aldundia



GOGORAZTEN DIZUEGU  
HURRENGO ALEA  
APIRILEAN IZANGO  
DUZUTELA ETXEAN

